

FUTBOLA

Italian zigorrak gutxitu dizkiete pasaporte faltsuak zituzten jokalariei

Leire Montes | DONOSTIA

Pasaporte faltsuen inguruan istiluak sortu ziren Italian; ondorioz, hainbat jokalariri zigorrak jarri zizkieten, eta denboraldi batean jokatzeko aukerarik gabe geratu ziren. Azken egunotan, baina, gauzak aldatzen ari dira.

Inter Milaneko jokalaria Alvaro Recobari urtebetezko zigorra jarri zioten ekainaren 27an. Atzo, ordea, zortzi hilabete *barkatu* zizkieten eta, beraz, datorren urriaren 31tik aurrera Inter Milanekin jokatzeko ikusi ahal izango dugu berriro ligako 10. jardunaldian. Recoba oso kontent agertu zen erabakiarekin, eta jendeari eskertu nahi izan zion jasotako laguntza guztia. «Jokalaria, entrenatzaile zein zuzendari eskerrak eman nahi dizkiet nigan konfiantza izateagatik. Eta batez ere Moratti lehendakariari, beti aldamenen izan dudalako», adierazi zuen jokalaria. Berriro jokatzeko gogo handia duela azpimarratu zuen, eta «indarkeriaren aurka» lan egingo duela gaineratu.

Inter «guztiz osaturik»

Inter Milaneko kirol zuzendari Gabriele Orialiri ere murriztu egin diote jaso zuen isuna, eta abenduaren 31tik aurrera lanean ariko da berriro. Horrela, taldea «guztiz osaturik» egongo dela adierazi zuen Recobak.

Vicenza taldeko Jeda's Capucho *Jeda*-k Recobaren zigor bera jaso zuen. Baina, hark bezala, urriaren 31n jokatzeko aukera izango du. Urtebetezko zigorra zuen taldeko zuzendari Rinaldo Sagamolak ere, baina berehala itzuliko da lanera, eta ez du isunik ordaindu beharko. Mekongo Ondo, Francis Ze eta Job, bestalde, egoera berean zeuden. Eta *barkamen* bera jaso dute Sampdoria taldeko hiru jokalariek. 2000ko abenduan ezarri zieten urtebetezko zigorra lau hilabetean geratu da orain. Ordaindu beharreko isuna gutxitu egin diote Sampdoriari ere.

AIZKORA. Nazabal, Peñagarikano, Olasagasti, Larretxea, Etxeberria eta Senosiain finalera

Mindegiaren ordezt, Senosian

Nazabalek sasoiko dagoela berretsi du, eta Senosian berriro finalean da hiru urte ondoren

Koldo Alduntzin | BASAURI

Ez zen besterik espero Euskal Herriko txapelketa Nagusiaren kanporaketan aurreneko lau txarteletan dagokienez, eta Nazabalek, Peñagarikanok, Olasagastik eta Larretxeak aurreikuspenak goitik behera bete zituzten. Beste bi sailkatuak, berriaz, lehen ere aski arituak dira finalean; hots, Etxeberria eta Senosian. Beraz, iazkoarekin alderatuta, Mindegiaren ordezt —utzi dio txapelketak jokatzeari— Senosian ariko da urriaren 28ko finalean, Getxoko Andra Mari probalekuan (12:00).

Oro har, sailkatu guztiek egin zuten iaz baino denbora eskasagoa. Beharbada, hego-haizeak eta egur eutsiek zerikusia izan zuten. Nazabalek egin zuen denborarik onena, eta berretsi egin zuen une aproposan dagoela edozer egiteko, Nafarroako txapela jantzi ondoren, eta Etxarri-Aranazkoak hobetu zuen soilik iazko denbora, 23 segundotan. Finaleko lanaren erdia izan zenez, ezin da jakin zer gerta daitekeen final handian; batez ere, Peñagarikanok eta Olasagastik hobe dezaketelako atzokoa.

Lehen multzoan, Nazabal onena eta bigarrenen, Peñagarikano

Basauriko San Fausto plaza bete egin zen kanporaketa ikusteko. Tartean, orain bi urte Donostian izan zen aizkolari australiar bat zegoen ikusmin handiarekin. Hamar aizkolari ziren lehian, bi multzotan, eta hamar enbor ebaki zituzten: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko. Lehen txandan, Nazabal,



KOLDO ALDUNTZIN

Nazabal izan zen atzo aizkolariak azkarrena Basaurin.

DONATO LARRETKEA

Aizkolaria

«Gaizki aritu naiz, gerria gogortuta, eta hobetzen ez badut, litekeena da finalean ez aritzea»

Olasagasti, Senosiain, Lopez eta Jaunarena aritu ziren.

Nazabalek hasieratik ezarritako erritmoari inork ez zion eutsi, eta lan erdietarako egina zuen aldea. Olasagasti berandu

samar heldu zen bere idi eta guzti, eta ez zen behar bezala hasi. Bigarren oinbikoan epaia itxi eta buelta eman behar izan zuen. Senosian ez dago sasoi-ko, eta sailkatu zen arren, ez zitzaion poztasun berezirik nabari. «Bigarren oinbikoan erabat itxi dut epaia, eta han asko nekatu naiz. Finalak asko kezkatzen nau, hura askoz gogorragoa baita», adierazi zuen. Iaz baino 3 minutu eta 12 segundo gehiago behar izan zituen, eta iaz zortzigarren izan zen.

Bigarren txandan, Peñagari-

kanok, Larretxeak, Etxeberriak, Mugerzak eta Erasunek jardun zuten. Larretxeak ekin zion azkarren probari, baina hirugarren egurra parean bota zuten Arantzakoak eta Peñagarikanok. Handik aurrera, aldea areagotu egin zuen gipuzkoarrek, eta iazko txapela janzteko bidean dela erakutsi; iaz baino 6 segundo gehiago behar izan zituen soilik. Larretxeak behera egin zuen, Nafarroako Txapelketan bezala, eta iaz —denborarik onena— baino 3 minutu eta 31 segundo gehiago behar izan zituen. «Aurreneko egurretan ongi hasi naiz, baina berehala gerria gogortu egin zait, eta indarrik gabe aritu naiz, gaizki, eta sufrituta amaitu dut lana», zioen amaieran.

Berriz medikutara joango dela zioen, «eta hark zer esaten didan, litekeena da finala ez jokatzeari; ez dut neure burua horrela ikusi nahi». Etxeberria ere antzera dabil, eta Nafarroako Txapelketan ahul aritu ondoren, medikutan ibilia da. «Astean pittin bat lasaitu zait mina, masajeak emanda, baina injekzio pare bat hartuta jardun dut; ez dakit zer egin», aitortu zuen Sunbillakoak.

SAILKAPENA

1. Floren Nazabal	17'08"
2. Joxemiel peñagarikano	18'37"
3. Joxemari Olasagasti	19'21"
4. Donato Larretxea	20'12"
5. Felix Etxeberria	21'20"
6. Antonio Senosiain	22'24"
7. Juan Jose Lopez	22'56"
8. Antonio Jaunarena	24'18"
9. Fausto Mugerza	25'44"
10. Juan Manuel Erasun	27'59"

FINALETIK KANPO

Erasun behera berriro

Sailkatu ez zirenen artean, Juan Manuel Erasun suertatu zitzaion okerrera, azkena geratzea, eta ondorioz, maila galtzea. Azurmendi ez aritzean, galbahea estua goa zen, eta Aiakoak ordaindu zuen. Nolanahi ere, iaz Erasun bera geratu zen aritu ezinik osasun arazoengatik. «Saio osoan erritmoan sartu gabe jardun dut», aitortu zuen. Behar adina prestatu gabe agertu zen, eta, gainera, oinbikoan izugarritzko adarra irten zitzaion. Fausto Mugerza oso haserre zegoen bere buruarekin. Iaz zazpigarren izan zen, eta sailkatzeko aukeran egon zen. Atzo, ordea, 6 minutu eta 39 segundo gehiago behar izan zituen, bi seme-ek biziki aupatu zuten arren albotik.



KOLDO ALDUNTZIN

Juan Jose Lopezek amaiera ona egin zuen sailkatu ez zen arren.

«Nahiko ongi prestatuta nentorren, baina ez dut ezer egin; ez dut gehiago txapelketarik jokatu», adierazi zuen.

Jaunarena ere hainbestean aritu zen; iazkoarekin alderatuta, postu bat irabazi zuen atzo, baina bi minutu eta 53 segundo gehiago eginda. «Honek ez dauka erremediorik, zahartzen ari baikara», aitortu zuen Zubietakoak. Bigarren oinbikoan adar handi samarra irten zitzaion. Beharbada, Juan Jose Lopezek galdu zuen aukerarik onena sailkatzeko, Senosiainek baino 32 segundo gehiago behar izan baitzituen soilik. Alde hori zuen lan erdietan, eta amaiera zertxobait hobe egin zuen. «Bizitasun pittin bat eta kolpea falta izan zaizkit», adierazi zuen penatan. Kontuan hartu behar da iaz igo zela Maila Nagusira, II. Mailako txapela irabazita.